



ARRANKUDIAGAKO ELIZALDE PRESTUAREN
UDALA
AYUNTAMIENTO DE LA N. ANTEIGLESIA
DE
ARRANKUDIAGA
(BIZKAIA)

2019KO EKAINAREN 15EAN, ARRANKUDIAGAKO ELIZATEKO UDALAK EGINDAKO UDAL BATZA BERRIAREN ERAKETARAKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

BERTARATUTAKO HAUTATUTAKO ZINEGOTZIAK

=====

Jesus Maria "Txutxi" Ariznabarreta Zubero jauna.

Itziar Duoandikoetxea Gonzalez anderea.

Maidar Biritxinaga Malaina anderea.

Mikel Abrisketa Izquierdo jauna.

Josu Beaskoetxea Azkueta jauna.

Ane Miren Esparza Montalban anderea.

Izaskun Barrenetxea Izagirre anderea.

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA

Daniel Maeztu Perez jauna.

=====

2019ko Ekainaren 15ean, 11:05ak izanik, hasiera ematen zaio ohiko osoko bilkurari.

1. ADIN MAHAIAREN ERAKETA

Constitución mesa de edad.

Adin mahaia Itziar Duoandikoetxea eta Maidar Biritxinaga osatzen dute, lehena adinean nagusiena izanez eta bigarrena gazteena. Eurekin batera, idazkari lanetan behin behinean udal idazkaria den Daniel Maeztu jauna.

La mesa de edad la componen Itziar Duoandikoetxea y Maidar Biritxinaga, siendo la primera la mayor en edad y la segunda la más joven. Les acompaña como secretario de la mesa el secretario interino municipal Daniel Maeztu.

2. HAUTATUTAKO ZINEGOTZIEN KREDENTZIALAK EGIAZTATZEA.

Comprobacion credenciales cargos electos.

Adin mahaiak egiaztatu egiten ditu zinegotzien kredentzialak. Horretarako Durangoko hauteskunde batzordeak bidalitako aldarrikatze-akta eta zinegotziek ekarritako kredentzialak alderatzen ditu eta egiaztatzen da zinegotzi berri guztien nortasuna.

La mesa de edad comprueba las credenciales de los nuevos cargos electos. Para ello, compara el acta de proclamación enviada por la Junta Electoral de Durango con las credenciales presentadas por los electos, comprobando la personalidad de los mismos.

3. KARGUAREN ZIN EGITEA EDO HITZEMATEA.

Juramento o Promesa del cargo.

Zinegotzien kredentzialak egiaztatu ondoren zinegotziek, banan banan, bere kargua zin egin edo hitzematen dute. Horretarako adin mahaiaren Presidentearen galderari erantzunez:

Zinegotzi karguaren betebeharrak leialtasunez beteko dituzula hitzeman edo zin egiten duzu?

Jesus Maria "Txutxi" Ariznabarreta Zubero, Itziar Duoandikoetxea Gonzalez, Mainer Biritxinaga Malaina eta Mikel Abrisketa Izquierdo jaun andereak, hurrengoa erantzuten hitzematen dute:

Arrankudiaga eta Zolloko herritarren aurrean, hitza emoten dot, nigan jarri dozuen konfiantzari nire lan zintzoagaz erantzungo deusodala gaur hartzen dodan zinegotzi arduratik.

Josu Beaskoetxea Azkueta, Ane Miren Esparza Montalban eta Izaskun Barrenetxea Izagirre jaun andereak hurrengoa erantzuten dute:

Gure Herriaren aurrean, zin egiten dut lau urte hauetan zinegotzi kargutik, Arrankudiaga-Zolloko herritar guztien alde apaltasunez, zintzotasunez eta leialtasunez lan egingo dudala.

Behin kargu hartzeak egin ondoren, eta legeak ezartzen duen zinegotzien gehiengo absolutua bertaratu denez, adin mahaiko presidentek eratzat ematen du udal batza berria.

Una vez realizadas las correspondientes tomas de posesion del cargo y a la vista de que concurre la mayoría absoluta legalmente establecida, la presidenta de la mesa de edad da por constituida la nueva corporación.

4. ALKATEAREN HAUTAKETA

Elección Alcalde.

Legeak Ezartzen duen bezala, alkatea izatera aurkeztu daitezke hauteskunderetan zerrendaburuak izan direnak. Hauek dira aurkezten direnak:

Jesus Maria "Txutxi" Ariznabarreta Zubero (EH bilduren zerrenda burua).

Josu Beaskoetxea Azkueta (EAJ-PNV-ren zerrenda burua).

Bere hautagaitza aurkezterako orduan hau da Josu Beaskoetxeak esaten duena:

Eskerrak eman maiatzaren 26an bozkatzera joan ziren herritar guztiei. Batez ere gudan konfiantza jarri zuten 311 herritarrei. Hemendik aurrera herritar guztien alde lan egingo dugula lau urte hauetan eta herritarrek nahi dutenerako izango gaituztela.

Bere hautagaitza aurkezterako orduan hau da Txutxi Ariznabarretak esaten duena:

Josuren ildo beretik, eskerrak ematea bozkatzera joan zen jende guztiari eta orain Arrankudiaga eta Zolloren alde lan egitea tokatzen dela.

Ohiko bozketa egiten da alkate hautatzeko. Guztira 7 boto ematen dira, denak baliagarriak. Txutxi Ariznabarretak aldeko 4 boto lortzen ditu eta Josu Beaskoetxeak 3. Beraz, legeak ezarritakoari jarraituz, Jesus Maria "Txutxi" Ariznabarreta Zubero jauna alkatea izendatzen da.

Se procede a la elección de alcalde mediante votación ordinaria. En total se dan 7 votos, todos validos. Txutxi Ariznabarreta consigue 4 votos a favor y Josu Beaskoetxea 3. Por lo tanto, en cumplimiento de lo recogido en la legislación vigente, D. Jesus Mari "Txutxi" Ariznabarreta Zubero es elegido alcalde.

5. ALKATE KARGUA HARTZEA.

Toma de posesión cargo de alcalde.

Aurreko alkate andereak, Itziar Duoandikoetxea andereak, aginte makila ematen dio alkate berriari eta honek bere kargua hitzematen du hurrengo hitzekin:

Arrankudiaga eta Zolloko herritarren aurrean, hitza emoten dot, nigan jarri dozuen konfiantzari nire lan zintzoagaz erantzungo deusodala gaur hartzen dodan alkate arduratik.

Behin kargua jabetuta, kargu hartzearen diskurtsoa egiten du hurrengoa esanez:

Egun on guztioi.

Ohore handia da niretzat gaur Arrankudiaga eta Zolloko alkate ardua hartu izana. Eskerrak guregan konfiantza jarri dozuen herritar guztioi. Eskerrak udal hauteskundeetan parte hartu eta hariketa demokratikoa eginez zuen bozka emon dozuen guztioi. Eskerrak gure aurretik urteetan zehar udal honetan izan diren hautetsi guztiei, eta, zelan ez, udal langile guztiei, euren lana funtsezkoa dalako udal jardueran. Guztien artean egin dabe honainoko ibilbidea eta Udalbatza honek, gaur, datozen lau urteotarako lekukoa hartzen dau, herriaren alde lan egiteko prest eta ilusioz beterik, gure ardurak hartzerakoan adierazi dogun moduan.

Arrankudiaga eta Zollo, jendea zorientsu bizitzeko munduko lekuri onena izatea gura dogula esan dogu hauteskunde kanpainen zehar. Bai, utopia bat da agian, eta utopiak ez dira oso-osorik betetzen gehienetan. Baina, utopiak, norabidea erakusten deusku eta helburuetara hurbiltzen gaitu.

Ildo horretan, EH Bilduk datozen lau urteotarako programa oso zehatza proposatu dausie herritarrei. Programa betetzeko konpromisoa hartu gendun, eta gure berbea beteko dogu.

Arrankudiagar eta Zolotar garen heinean gara euskal herritarrak, munduan bere lekua lapurtu jotzien estatu gabeko nazio bateko herritarrak. Orain dala 5 mende, 1512an Nafarroako Erresuma era bortitzean hondatu jozkuenetik, Euskal Herriaren historiaren haria bere askatasuna berreskuratzeko etengabeko borroka izan da: barriro herri gisa, nazioa gisa, aitortua izateko borroka; euskara eta euskal kulturaren biziraupenerako borroka, geure etorkizun ekonomiko eta soziala askatasun osoz eraikitzeke borroka.

Etengabeko borroka, barriro burujabetza berreskuratu arte; Euskal Estatua eratu eta Euskal Errepublikak aldarrikatu arte.

Euskal herritar guztiok borroka horren parte gara eta, herritarrengandik hurbilen dagozen instituzioek, udalek, zeresan eta zeregin handia daukie prozesu horretan. Gureak ere.

2014n, Gure Esku Dagok bultzatuta, Ados herri plataformak antolatu jauen herri galdeketa "gura dozu euskal estatu burujabe bateko herritar izan?" galdetu jakien Arrankudiaga eta Zollo herriarrei, eta baietza izan zan erabateko gehiengoaren erantzuna. Guk, herriaren hitza geurea egiten dogu, eta geure berbea emoten dogu berandu baino lehen Euskal Herrian zabalduko dan burujabetza prozesuan Arrankudiaga eta Zolloko Udalak duintasun osoz beteko dauela bere lekua, eta momentu historikoek eskatzen daben alturan egongo dala.

XXI. mendean Europaren erdian, Euskal Herriaren moduko nazio txiki baten ehundaka eta ehundaka preso eta exiliatu politiko egotea da aipatutako borroka luze horren adierazlerik gordinena. Guztiak gure artean gura doguz. Euskal preso eta exiliatuak etxera!

Aste honetan Kataluniako politikoen aurkako epaiketa amaitu dala eta, une hau aprobetxatu gura dot preso eta exiliatu katalanen askatasuna eskatzeko, eta elkartasunez eta konplizitatez beteko besarkada bat bidaltzeko herri katalanari eta Kataluniako Udalerri Independentisten Elkarteari.

Presos polítics llibertat! Visca Catalunya lliure!

Gaur, lau urteko bidaia hasten dogu eta eratu berria dogun Udalbatza honetako kide guztiok itsasontzi berean goazela sentitzea gura neuke. EH Bilduri dagokio timoia maneiatzeko ardura. Normala dan moduan, zenbait kontutan diferentziak izango doguz gure artean, baina gauza gehienetan ados egongo gara; ziur nago. Amesten dogun Arrankudiaga eta Zollo hori eraikitzeke ahaleginean, denok norabide berean arraun egitera gonbidatzen zaituet.

Ni neu, itsaontziaren timoia gobernatzerakoan, herriaren taupadak sentitu eta ulertzen ahaleginduko naz, benetan sinesten dodalako alkaterik onena herria dala.

Gora Arrankudiaga eta Zollo!

6. KONTAKETA-AKTA ETA UDAL ONDAREAREN KONTU EMATEA. Dación de cuentas del acta de arqueo y situación patrimonial del ayuntamiento.

Behin behineko idazkari/kontu-hartzaileak kontaketa aktaren gaur egungo egoera zein dan adierazten du. Kontaketa-aktaren egoera hurrengo hau izanik:

El secretario-Interventor interino da a conocer la situación actual del acta de arqueo. Que arroja la siguiente situación:

Egoera orokorra, diru sarrerak eta ordainketak:

ACTA DE ARQUEO	PRESUPUESTO	2019	Periodo desde	1/1	a 14/6
-----------------------	-------------	------	---------------	-----	--------

Existencia anterior al periodo	960.705,06
<u>INGRESOS</u>	
De Presupuesto.	657.957,57
Por operaciones no Presup.	83.935,83
Por Reintegros de Pago.	691,89
De Recursos de Otros Entes.	0,00
Por Movimientos Internos.	1.000,00
De Operaciones Comerciales	0,00
TOTAL INGRESOS	743.585,29
Suman Existencias + Ingresos	1.704.290,35
<u>PAGOS</u>	
De Presupuesto.	559.991,27
Por operaciones no Presup.	76.342,62
Por Devolución de Ingresos.	1.721,94
De Recursos de Otros Entes.	0,00
Por Movimientos Internos	1.000,00
De Operaciones Comerciales	0,00
Por diferencias de redondeo del Euro	0,00
TOTAL PAGOS	639.055,83
Existencias a fin del periodo	1.065.234,52

Eta udal ondareari dagokionez hauek dira ekainaren 14ean balantzean agertzen diren datuak:

ARRANKUDIAGA

		EJERCICIO 2019		
		BALANCE		
CUENTAS	ACTIVO	NOTAS EN MEMORIA	EJ. 2019	EJ. 2018
	A) Activo no corriente		8.500.912,28	8.492.272,88
	I) Inmovilizado intangible		189.398,04	180.758,64
200,201,(2800),(2801)	1. Inversión en Investigación y desarrollo		90.740,88	82.101,48
203,(2803),(2903)	2. Propiedad Industrial e Intelectual			
206,(2806),(2906)	3. Aplicaciones Informáticas			
207,(2807),(2907)	4. Inversiones sobre activos utilizados en régimen de arrendamiento o cedidos			
208,209,(2809),(2909)	5. Otro Inmovilizado Intangible		98.657,16	98.657,16
	II) Inmovilizado material		7.970.508,24	7.970.508,24
210,(2810),(2910),(2990)	1. Terrenos			
211,(2811),(2911),(2991)	2. Construcciones		1.530.012,60	1.530.012,60
212,(2812),(2912),(2992)	3. Infraestructuras		44.067,07	44.067,07
213,(2813),(2913),(2993)	4. Bienes del patrimonio histórico			
214,215,216,217	5. Otro Inmovilizado material		2.480.088,37	2.480.088,37
218,219,(2814),(2815)				
(2816),(2817),(2818),(2819)				
(2914),(2915),(2916),(2917)				
(2918),(2919),(2999)				
2300,2310,232,233	6. Inmovilizado material en curso y anticipos		3.916.340,20	3.916.340,20
234,235,237,238				
2390				
220,(2820),(2920)	III) Inversiones inmobiliarias		40.656,00	40.656,00
221,(2821),(2921)	1. Terrenos			
2301,2311,2391	2. Construcciones		40.656,00	40.656,00
	3. Inversiones inmobiliarias en curso y anticipos			
240,(2840),(2930)	IV) Patrimonio público del suelo		300.000,00	300.000,00
241,(2841),(2931)	1. Terrenos		300.000,00	300.000,00
243,244,248	2. Construcciones			
249,(2849),(2939)	3. En construcción y anticipos			
	4. Otro patrimonio público del suelo			
2500,2510,(2940)	V) Inversiones financieras a largo plazo en entidades del grupo, multigrupo y asociadas		350,00	350,00
2501,2511,(259),(2941)	1. Inversiones financieras en patrimonio de entidades de derecho público			
2502,2512,(2942)	2. Inversiones financieras en patrimonio de sociedades			
252,253,255,(295)	3. Inversiones financieras en patrimonio de otras entidades		350,00	350,00
(2960)	4. Créditos y valores representativos de deuda			
257,258,(2961),(2962)	5. Otras Inversiones financieras			
260,(269)	VI) Inversiones financieras a largo plazo			
261,2620,2629,264	1. Inversiones financieras en patrimonio			
266,267,(297),(2980)	2. Créditos y valores representativos de deuda			
263	3. Derivados financieros			
268,27,(2981),(2982)	4. Otras Inversiones financieras			

Udal batza berria eratuta eta Jesus Mari "Txutxi" Ariznabarreta alkatea jaunaren gidaritzapean, udalburuak amaiera eman dio ekitaldiari eta bilkura 2019ko ekainaren 15ean, 11:30etan amaitu da. Akta hau alkateak sinatu du; eta nik, Idazkariak, Fede ematen dut.

Constituida la nueva corporación y bajo la presidencia del alcalde D. Jesus Mari "Txutxi" Ariznabarreta, se da por finalizado el acto, siendo las 11,30 horas del 15 de junio de 2019. La presente acta es firmada por el alcalde y por mí, el secretario que doy fe de ello.

ALKATEA

IDAZKARIA